03. Hiri-sareak

1. Sarrera. Hirien sorrera, tokia, forma eta egileak gorabehera, horra hiriaren bi definizio:
   - *"Hiria zera da, ikuspegi sozialetik heterogeneoak diren gizabanakoen kokaleku handia, dentsoa eta iraunkorra"* (Louis Wirth soziologo alemaniar-estatubatuarra, 1938).
   - *"Hiria zera da, komunitate baten poterearen eta kulturaren kontzentrazio goreneko puntua"* (Lewis Mumford historialari estatubatuarra, 1938).
2. Hiriaren bederatzi ezaugarri (Spiro Kostofek *The City Shaped* liburuan azaldutakoaren arabera):
   - HIRIA JENDE-AGLOMERAZIOA DA: Hiria dentsoa da, biztanleria eta tamaina gorabehera. Industria-iraultza baino lehenagoko hiriak txikiak ziren (2.000 biztanle baino gutxiago, gehienetan), baina dentsoak: Euskal Herrian 100 hiribildu inguru sortu zituzten Erdi Aroan, toki estrategikoenetan. Adibideak: Malè, Maldiva uharteak, nahita dentsoa, uraz babesteko 3 metroko harresi bat eraiki zuena 14 urtetan zehar. Kartik Purnima izeneko jaia Varanasin, India. Andreas Gursky argazkilari alemaniarraren argazki jendetsuak. Alex S. MacLean argazkilari estatubatuarraren goitiko argazkiak.
   - HIRIAK MUGA DU: Hiriak mugatutak daude. Fisikoki ez bada (harresiak, ur-ertza, orografia…), sinbolikoki (muga politikoak, kulturalak…). *"Harresirik gabeko hiria ez da hiria"* (Jean-François Sobryk *De l'architecture* liburuan, 1776). Adibideak: Monteriggioni, Toskana, Italia. Aigues Mortes, Frantzia. Pireoko harresia, Atenas, Grezia. Hadrianoren harresia (Vindolandako kanpamenduaren inguruak, Eskoziako mugatik gertu). Jordaniako kanpamendu harresitu handiagoak, benetako hiriak jada. Luzaide, herri bat, bi estatu.
   - HIRIAK HIERARKIA DU: Hiria erabileren arabera banatzen da. Hirian pertsona bakoitza lanbide batetan bereizten da, eta lanbideen eta gizartearen hierarkia bat dago (aberatsak txiroak baino poteretsuagoak dira; apezpikua artisaua baino garrantzitsuagoa da…). Hiria berez zonakatzen da. Jendea etnia, arraza edo erlijio ezberdinen arabera elkartzen da. Adibidea: Gasteizko alde zaharreko kaleak ogibideen arabera banatzen ziren (Hedegile kalea, Zapatari kalea, Errementari kalea, Aiztogile kalea, Pintore kalea…). Hausmannen garaiko Parisko etxebizitza-eraikin baten ebaketa, klase sozialetan banatua. Ernest Burgess soziologoaren 1925eko eremu kontzentrikoen eredua, azaltzen zuena 1920-30. hamarkadako hiri estatubatuarrek jasatzen zuten klase sozialen araberako lurzoruaren erabilera eta hazkunde hierarkikoa (plangintzarik gabeko gizarte-segregazioa). Homer Hoytek, berriz, Chicagoko lurzoruaren erabilerak azaltzen zituen sektoreka antolatutako eredua proposatu zuen 1939an, Burgessen isotropia apurtuz, eta aberatsek Michigan lakurako bistengatik borrokatzen zutela esanez, baita fabrikak ibaien arroetan eta burdinbideetan zehar hedatzen zirela ere.
   - HIRIAK BALIABIDEAK DITU: Hiriak edonolako sarrerak errazten dituzten lekuak dira: komertzioa erraz dezake, baliabide naturalak izan ditzake (nekazal-lurrak, itsasoa, mehategiak…), giza-baliabideak (erregearen gortea…). Hiriek aukerak errazten dituzte. Adibideak: Takht-i Suleiman (K.a. I, Azerbaian, Iran) ur epeleko lakuaren alboan kokatzen da; Baiona (1599ko planoa) bi ibaien arteko loturan sortzen da: Atturri eta Errobi; Donostia (1721ko planoa) Urgul mendiaren babesean kokatzen da; Espekulatzaileak Los Angelesen; Tokyoko komertzio-kalea.
   - HIRIAK IDAZTEN DU: Hiriak ondasunak zenbatu eta erregistratu behar ditu (hiriak aurrekontua du). Hiriak komunitatea arautuko duen lege-multzoa idatzi behar du. Hiriak jabego tituluak erregistratzen ditu. Adibideak: Hammurabiren kodea, Babilonia, K.a. XVII. Donostiako 1995eko plan orokorra. Katastroko agiria. Udalerrien jabegoa: haien tamaina zatituagoa da toki polemikoetan, alegia, toki aberatsenetan (azpiegitura nagusien ibilbideetan: Tradizionalki Done Jakue bideetan zehar).
   - HIRIAK INGURU MONUMENTALA DU: Hiria ez da soilik etxebizitza-eraikinez osatzen. Hirian eraikin publikoak daude, mugarri gisa funtzionatzen dutenak eta hiriari berari eta hiritargoari identitate-komuna ematen dietena. Adibidea: Firenzeko hiri-ibilbide monumentala (Uffizi, Signoria, Duomo, Piazza Annunziata); Albert Speer, Hitlerrek amesten zuen Berlin, 1937-1941; Bilboko San Mames *katedrala*.
   - ERAIKINEK ETA JENDEAK EGITEN DUTE HIRIA: Hiria gizakiak egindako artelanik garrantzitsuena da, eta gizakion ospakizun nagusiekin lotuta dago. Adibideak: Sienako Palioaren lasterketa. Gasteizko Zeledonen jeitsiera. Iruñeako San Ferminetako txupinazoa.
   - HIRIA ETA LANDA ERLAZIONATUTAK DAUDE: Lurraldeak hiria elikatzen du. Hiria eta landaren arteko muga ez da irudikatu ohi dugun bezain zehatza. Batzutan zaila da esatea zer izan den lehen, hiria ala lurraldearen banaketa. Hiri erromatarrak ezin dira ulertu inguruko lurralde-zenturiaziorik gabe (*Centuriae* bakoitzak 700x700m inguruko hedadura zuen); Euskal Herriko Sakanean horren aztarnak ere badaude; geroago zenturiazioaren antzerako antolatze-sistemak erabili zituzten Amerikako kolonizatzaileek XVI et XVII. mendeetan: Caracas, 1567; Argentinako Mendoza, 1500; Buenos Aires; Filadelfia, 1682; Jeffersonen 1785ko *Land Ordinance* (800x800m inguruko karratua), Phoenixeko ikuspegia gaur egun. Euskal Herriko sarobeek eta kortarriek (1 gorabila = 13,69 m; Luis Mari Zalduaren ikerketak) bertako lurralde-antolakuntzaren sistema osa zezaketen.
   - HIRIA HIRI-MULTZOAREN ZATI DA: Hiriak ez daude inoiz isolaturik. Hiriek hiri-sistemak sortzen dituzte. Hiri-sistemak hierarkikoki antolatzen dira. Adibideak: Pearl ibaiaren delta, Txina, sei hirik osatua, 12 miloi biztanle. Ruhr eremu metropolitarra (5,3 milioi biztanle inguru); Walter Christallerren "Erdigunearen teoria" eta hirien eragin ekonomikoaren eremu asoziatua, 1933. Euskal Herriko metropoliak. Bilboko Eremu Metropolitarra, 35 udalerri, 900.000 biztanle. Donostia-Baiona eurohiria (600.000 biztanle baino gehiago 55 kilometrotan), Arku Atlantikoa delako igarobide naturalaren erdian. Kamioientzako bide berri berezi bat proposatzen du. Beharrezkoa al da Hondarribiako aireportu txikia, 25 kilometrora Miarritzekoa egonik?